FUTBOLA. Manchester eta Bayern final-laurdenetara sailkatu dira

Azken jardunaldian erabakiko da B multzoa

Erromak, Bartzelonak, Galatasarayk eta Liverpoolek aukerak dituzte



ANDREU DALMAU / EFE

Bartzelonako Rivaldo baloia jaurtitzear, Liverpooleko Riise aldamenean duela.

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Jardunaldi bakarra falta da Txapeldunen Ligako bigarren fasea amaitzeko eta azken jardunaldi hori erabakigarria izango da B multzoan. Bartzelonak eta Erromak etxean jokatu zuten Liverpoolen eta Galatasarayren aurka. Etxeko bi taldeek irabazi balute final-laurdenetarako txartela lortuko zuten, baina bi partidak berdinketan amaitu ziren. Azken jardunaldian Istanbulen jokatuko dute Galatasarayk eta Bartzelonak eta Anfield Road mitikoan Liverpoolek eta Erromak. Lau taldeek dute aurrera egiteko aukera.

Bartzelonak eta Liverpoolek Camp Nou futbol zelaian jokatutako partida ez zen ona izan, baina bai emozio eta tentsio handikoa. Bi taldeek asko zuten jokoan eta zuten guztia eman zuten. Lehen zati kaskarra jokatu zuten Bartzelonak eta Liverpoolek. Bartzelonak baloiaren jabetza izan zuen, baina gol aukera onenak Liverpooleko Gerrardek izan zituen bi falta buruz erematatuta.

Bigarren zatian hobera egin zuen Bartzelonaren jokoak. Liverpoolen presioa gainditzen jakin zuten hainbat jokalditan. Gola ere gertu izan zuten kataluniarrek. Saviolak eskuin hegaletik egindako erdiraketa bat zutoinera erematatu zuen buruz Cristanvalek eta ondoren Cocuk ez zuen baloia sareetara bidaltzen asmatu.

Erromako partida ere tentsio handikoa izan zen. Garaipenarekin sailkapena ziurtatua zuten italiarrek, baina lehen zatia amaitzear zela, Umit Karanek aurretik jarri zuen Galatasaray. Atsedenaldira aurretik iritsi ziren turkiarrak, baina bigarren zatia hasi eta berehala Cafu brasildarrak berdinketaren gola sartu zuen Erromarentzat. Bi taldeak berdinketa hausten ahalegindu ziren, baina partida banakoarekin amaitu zen.

Manchester eta Bayern final-laurdenetara sailkatu dira

A multzoan erabaki da zein bi taldek egingo duten aurrera. Jardunaldi baten faltan Manchester United eta Bayern Muniche final-laurdenetan dira dagoeneko. Bi taldeek elkarren aurka jokatu zuten atzo Ingalaterran eta husna berdindu zuten. Baina multzoko beste partidan Naonedek eta Boavistak bana berdindu zuten eta emaitza horrek mesede egin zien Manchesterri eta Bayerni, beste bi taldeek aukera guztiak galdu dituztelako. Naoneden gola Moldovanek sartu zuen, Boavistarena, aldiz, Martelinhok. A multzoan bi faboritoek ez dute hutsik egin.

TXAPELDUNEN LIGA

A MULTZOA	Pt	J	I	B	G	Al	Ko
1. Manch. U.	9	5	2	3	0	10	3
2. Bayern M.	9	5	2	3	0	3	1
3. Boavista	5	5	1	2	3	2	6
4. Naoned	2	5	0	2	3	3	9

Atzoko emaitzak

Manchester United	0-0	Bayern Munich
Naoned	1-1	Boavista

B MULTZOA	Pt	J	I	B	G	Al	Ko
1. Erroma	7	5	1	4	0	6	3
2. Bartzelona	6	5	1	3	1	6	7
3. Galatasaray	5	5	0	5	0	5	5
4. Liverpool	4	5	0	4	1	2	4

Atzoko emaitzak

Bartzelona	0-0	Liverpool
Erroma	1-1	Galatasaray

C MULTZOA	Pt	J	I	B	G	Al	Ko
1. Real Madril	15	5	5	0	0	12	4
2. Panathinaikos	7	5	2	1	1	5	6
3. Porto	4	5	1	1	3	3	5
3. S. Praga	3	5	1	0	4	4	10

Astearteko emaitzak

Porto	2-1	Panathinaikos
Real Madril	3-0	Sparta Praga

D MULTZOA	Pt	J	I	B	G	Al	Ko
1. Deportivo	10	5	3	1	1	6	3
2. Arsenal	7	5	2	1	1	8	7
3. B. Leverkusen	7	5	2	1	2	8	10
4. Juventus	4	5	1	1	3	6	8

Astearteko emaitzak

Arsenal	0-2	Deportivo
B. Leverkusen	3-1	Juventus

SASKIBALOIA. Gaur hasiko da Kopa Gasteizen

Bartzelona-San Fernando eta Real Madril-Estudiantes aurreneko final-laurdenak

Erredakzioa | **GASTEIZ**

Dena prest da Gasteizen Espainiako Saskibaloi Kopa abian jartzeko. Tau Baskoniak bihar jokatuko du Joventuten aurkako kanporaketa, gaur, aldiz, aurreneko bi final-laurdenak jokatuko dira: Bartzelona-Caja San Fernando eta Real Madril-Estudiantes.

Buesa Arena kiroldegian kantxaratzen aurrenak Bartzelona eta Caja San Fernando izango dira (18:15). Kataluniarrek iaz irabazi zuten Kopa txapelketa eta Gasteizen titulua errepikatu nahi dute. Gaur behintzat finalerdietara sailkatzeko ez lukete arazorik izan behar. ACB Ligako liderra da Bartzelona, Unicajarekin batera, eta nahiz eta azken jardunaldian Tau Baskoniaren aurka galdu (96-82), kontuan hartzeko moduko taldea du. Horri aurkariaren egoera kaskarra gehitu behar zaio. San Fernandok ACB Ligan jokatu dituen azken sei partidak galdu ditu, eta beherakada handia izan du azken asteetan.

Kataluniarrek arazoak dituzte barruko jokoan. Ekonomouk taldea utzi zuen eta Dueñas eta Rentziaz min hartuta daude. Horiei Alzamorak azken egunetan izandako arazoak erantsi behar zaizkie. Bartzelonako jokalariek, ordea, Caja San Fernando mendean hartuko dutela uste dute.

Bigarren final-laurdenean Real Madril eta Estudiantes ariko dira nor baino nor (20:30). Estudiantesek badaki Kopa Gasteizen irabaztea zer den —2000n txapeldunak izan ziren—, baina zaila dute orduko balentria errepikatzea. Real Madrilek arazo asko ditu lesioekin —Djordjevic, Tarlac, Tabak eta Struelens min hartuta daude, nahiz eta jokatu jokatuko duten—, baina beti da aurkari gogorra. «Egoera zailetan ere, beti irabazi behar dugu», esan berri du Real Madrileko entrenatzaile Sergio Scariolok. Faborito argirik gabekoa da madrildarren arteko kanporaketa.

Entrenatzaile gehienek Tau ikusten dute faborito

Tau Baskoniak bihar jokatuko du Joventuten aurka. Orain bi urteko Kopan kale egin zuten gasteiztarrek etxean, baina ACB Ligako entrenatzaile gehienen iritziz, Tau Baskonia da Kopa irabazteko hautagai nagusia. Galdetutako hamar entrenatzaileetatik bostek egin dute gasteiztarren aldeko apustua. Gainerako bost entrenatzaileek, aldiz, Bartzelona, Real Madril, Unicaja eta Estudiantesen aldekoa. Baina talde horiek bozka bana jaso dute, Tau Baskoniaren aldeko bost botoen aurrean. Ea entrenatzaileek euren pronostikoan asmatzen duten.

MIREN SAEZ

Real Madrileko Djordjevic aurreko partida batean.